

## **I. KAPITULUA.**

### **IZENA, OBJEKTUA, HELBIDE SOZIALA, IRAUPENA, LURRALDE ESPARRUA**

#### **1. ARTIKULUA. IZENA**

AXULAR LIZEOA, KOPERATIBA ELKARTEA, Irakaskuntzako Kooperatiba da, eta arau hauek arautzen dute: Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Kooperatiben, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen hastapenek eta xedapenek, indarrean dauden lege arauak eta honako Estatutu hauek.

#### **2. ARTIKULUA. OBJEKTUA**

Sozietatearen objektua, funtsean, eskolaurre, haur, lehen eta bigarren hezkuntzek osatzen dute; beste hezkuntza gradu, maila edo ikasketa batzuetara zabaltzeko aukeraren kalterik gabe, betiere.

AXULAR LIZEOA, KOOPERATIBA ELKARTEA gizarte ekimen eta partaidetzako irakaskuntza zentroa da, askotarikoa; euskara erabiltzen du ikasteko eta harremanetarako; euskal hizkuntza eta kultura zabaltzeko konpromisoa du, eta giza balioetan oinarritutako prestakuntza akademiko sendoa eta osoa ematen die bere ikasleei.

#### **3. ARTIKULUA. HELBIDE SOZIALA**

Honako hau da kooperatibaren helbide soziala: Arostegi 10, Aiete auzoa, Donostia. Kontseilu Errektoreak helbidea udalerriko beste leku batera aldatzea erabaki dezake.

#### **4. ARTIKULUA. IRAUPENA ETA LURRALDE ESPARRUA**

**BAT.-** Kooperatibaren iraupena mugagabea izango da, eta sorrerako eskritura publikoa egitean hasiko dira bere jarduerak.

**BI.-** Kooperatibaren jardueren lurralde esparrua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da.

#### **II. KAPITULUA.**

##### **BAZKIDEAK ETA BERAIEEN BARNE ERREGIMENA**

#### **I. ATALA. BAZKIDEEN ONARPENA**

#### **5. ARTIKULUA. BAZKIDE IZAN DAITEZKEEN PERTSONAK**

**BAT.-** Bazkide onuradun zuzenak.

- a) Kooperatiba honetan seme-alabak edo tutoretzapeko pertsonak dituzten aita-amak, tutoreak edo legezko ordezkariak.
- b) Adin nagusiko ikasleak, kooperatibak zehaztutako ikasmaita eta egoeretan.
- c) Erakunde publikoak edo onura publikoko erakunde pribatuak —ongintzakoak barne—, adin txikiko ikasleen edo ezgaituen legezko zaindari edo babesle direnean; edo adin nagusiko ikasleen ordezkari direnean, ikasleak erakunde horiek zuzendutako zentro, egoitza, erresidentzia edo establezimenduetan jasota badaude, eta beren ordezkari izateko espresuki izendatu badituzte.
- d) Behar den gaitasun juridikoa duten adin nagusiko pertsona fisikoak.

## **BI.- Bazkide laguntzaileak.**

Kooperatibaren jardueretan zuzenean parte hartu gabe, kooperatibaren objektu soziala lortzen lagundu dezaketen pertsona fisiko edo juridikoak, gainerako bazkideen interesekin bat datozela frogatzen badute.

Onuradun zuzenak izateari utzi eta kooperatiban parte hartu nahi duten bazkideak bazkide laguntzaile izatera igaroko dira.

## **6. ARTIKULUA. BAZKIDEAK ONARTZEKO BALDINTZAK**

Baldintza hauek bete beharko dira bazkide izateko:

- a) Kontseilu Errektoreari zuzendutako onarpen eskaera egitea, idatziz.
- b) Estatutu hauetan eta indarrean dauden beste arauetan ekarpenei eta erantzukizun ordeztaleei buruz jasotzen diren konpromisoak onartzea onarpen eskaeran.

## **7. ARTIKULUA. ONARPENARI BURUZKO ERABAKIAK**

**BAT.**- Kontseilu Errektoreari dagokio bazkideen onarpenari buruzko erabakiak hartzea.

**BI.**- Bazkideen onarpenari buruzko erabakiak bidezko arrazoi hauek soilik muga ditzakete:

- a) Kooperatiban lan egiteko gaitasunari dagozkionak.
- b) Kooperatibaren funtzionamendurako eta antolamendurako ezinbestekoak diren bazkide berrien beharrian objektiboei dagozkienak.

Bazkideak onartu edo baztertzeko arrazoiak ezingo dute arbitrarioak edo bidegabekoak izan, objektu sozialarekiko.

## **8. ARTIKULUA. BAZKIDEAK ONARTZEKO PROZEDURA**

**BAT.**- Onartzeko eskaera idatziz egin beharko zaie administratzaileei, eta hauek, eskaria jaso dutenetik hasita, hirurogei eguneko epea izango dute, gehienez, erantzuna emateko.

Onarpenari buruzko erabakia idatziz jakinaraziko zaio interesatuari, eta ez onartzeko arrazoiak eman beharko dira.

**BI.**- Epe horretan erabakirik hartu ez bada, onartutzat joko da eskaera.

## **9. ARTIKULUA. ONARPENARI DAGOZKION ERREKURTSOAK**

**BAT.**- Onarpen eskaerari ezezkoa ematen dion erabakia errekurri dezake eskaera egileak Batzar Orokorrean, eta hogeit eguneko epea izango du horretarako, baliozko jakinarazpena jaso duenetik hasita. Egingo den lehen Batzar Orokorrean erabakiko da errekurtsoa, isilpeko bozketa bidez eta aurretik interesatuari hitza emanez. Erabakia idatziz jakinaraziko zaio interesatuari.

**BI.**- Onarpenari buruzko erabakia Batzar Orokorrean errekurri daiteke, erabakia jakinarazi eta 10 laneguneko epean, bazkideen %10ek, gutxienez, hala eskatuta. Errekurtsoa aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera ebatziko da.

## **II ATALA. BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK**

### **10. ARTIKULUA . ESKUBIDE ETA OBLIGAZIO SOZIALEN HASIERA**

Eskubide eta obligazio sozialak onarpen erabakia hartzen den egunetik aurrera jarriko dira indarrean.

Erabaki hori aurkatzen bada, erabakia eten egingo da eskumena duen organoak errekurtsoa ebatzi arte.

### **11. ARTIKULUA. BAZKIDEEN OBLIGAZIOAK**

Honako hauek dira bazkideen obligazioak:

**a)** Batzar Orokorraren eta deitzen dieten gainontzeko organoen bileretara joatea, eta gobernu organoek hartutako baliozko erabakiak onartzea.

**b)** Karguren baterako izendatuz gero, hori onartzea, ez onartzeko bidezko arrazoirik dagoen kasuetan izan ezik.

**c)** Kooperatibaren helburu diren jardueretan parte hartzea. Partaidetzako gutxieneko arau edo modulu hauek ezartzen dira, Kooperatibak dituen bazkideen arabera:

\* Bazkide onuradun zuzenentzat: irakaskuntza zikloetan zehar beren seme-alabak edo zaintzapean dituzten pertsonak kooperatibara eramatea, edo eskatzen diren zerbitzuak erabiltzea, eta ezartzen diren aldizkako ekarpenak edo kuotak ordaintzea.

\* Bazkide laguntzaileentzat: Kooperatibari laguntzeko eta helburu soziala betetzeko eta hobetzeko eskatzen zaizkien lanak egiteko prest egotea.

Administratzaileek dagokion neurrian aske utz ditzakete bazkideak obligazio horietatik, hori justifikatzeko arrazoiak daudenean.

**d)** Kooperatibaren objektu sozialaren aurka dagoen jarduerarik ez egitea, ezta horrelako jarduerak burutzen dituztenekin lankidetzan aritzea ere, Kontseilu Errektoreak berariaz horretarako baimena ematen duten kasuetan izan ezik.

**e)** Kooperatibaren jarduerak eta datuak isilpean gordetzea, horien berri zabaltzeak kooperatibaren interesei kalte egin badiezaieke.

**f)** Kooperatibaren kapitalean egin behar dituzten ekarpenak ezarritako baldintzetan egitea, eta aldizkako kuotak ezarritako epeetan ordaintzea.

- g) Galeren egozketan Batzar Orokorrak erabakitako kopuruarekin parte hartzea.
- h) Kooperatibaren izena kaltetuko duen adierazpen publikorik ez egitea.
- i) Legeen eta estatutuen ondorioz sortutako gainontzeko obligazioak betetzea; bai eta kooperatibako organoek balio osoz hartutako akordioen ondorioz sortutakoak ere.

## **12. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ESKUBIDEAK**

**BAT.**- Bazkideek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Kooperatibako organoetako karguak hautatzea eta horietarako hautagai izatea.
- b) Batzar Orokorrean edo batzarkide diren gainontzeko organoetan hartuko diren akordio guztietan hitz eginez eta botoa emanaz parte hartzea.
- c) Kooperatibako jarduera eta zerbitzu guztietan parte hartzea.
- d) Beren eskubideez baliatu eta beren obligazioak betetzeko beharrezko informazioa jasotzea.
- e) Bidezkoa bada, kooperatibako kapitalean egindako ekarpenak eguneratzea eta itzultzea.
- f) Lege eta estatutuen ondoriozko beste guztiak.
- g) Informazioa eskatzea, ondorengo artikuluan ezarritakoari jarraituz.

**BI.**- Eskubide sozial horiek berdinak dira bazkide guztientzat, eta horietaz baliatzean, bazkideek kontuan hartu beharko dituzte legeek eta estatutuek nahiz kooperatibako organoek balio osoz hartutako erabakiak.

## **13. ARTIKULUA. INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA**

**BAT.**- Bazkideek informazioa jasotzeko eskubidea lege honetan, estatutuetan edo Batzar Orokorraren akordioetan xedatukoari jarraituz erabili ahal izango dute; horietan guztietan, egoki irizitako bideak jarri ahal izango dira bazkideen eskubide hau erraztu eta gauzatzeko.

**BI.**- Bazkide guztiek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Kooperatibaren Estatutuen kopia bat eta, hala behar badu, Barne Araudiarena eskatzekoa.

b) Kooperatibako Bazkideen Erregistro Liburua eta Batzar Orokorraren Akta Liburua aztertzeko eskubidea, eta, arrazoitutako eskabidea eginez, Batzar Orokorreko Akta Liburuen eta bertan hartutako erabakien kopia egiaztatua, eta bazkideen erregistro liburuko inskripzioen ziurtagiriak jasotzeko eskubidea.

c) Kontseilu Errektoreak hartutako erabakien kopia egiaztatua eskatzeko eskubidea, erabakiok bazkideari eragiten badiote.

d) Kooperatibarekiko duen ekonomia egoeraren berri jasotzeko eskubidea. Informazio hori administratzaileek eman beharko diote eskatu eta hilabete igaro baino lehen.

**HIRU.**- Kooperatibaren funtzionamenduaren edo emaitzen berri izateko beharrezkoak diren argibideak edo txostenak eskatu ahal izango ditu edozein bazkidek Kontseilu Errektoreari idatziz eskatuz. Informazio hori idatzizko eskaria egin eta hamabost egun igaro ondorengo Batzar Orokorraren lehenengo bileran eman beharko zaio eskaria egin duenari.

**LAU.**- Ekitaldiko kontuak edo proposamen ekonomikoak eztabaidatu behar diren Batzar Orokorretan, bazkideek hitzez eskatu ahal izango dituzte horiei buruzko argibideak edo azalpenak; eta horretarako, deialdiak dirauen bitartean, kontuak azaltzen dituzten agiriek kooperatibako helbide sozialean egon beharko dute, bazkideek azter ditzaten.

Epe berean, bazkideek Zaintza Batzordeak egindako kudeaketa txostena helbide sozialean aztertzeko eskubidea izango dute.

Epe horretan zehar eta Batzar Orokorra izan baino bost egun lehenago gutxienez, bazkideek ekonomia agiriari buruzko azalpenak eta argibideak eskatu ahal izango dituzte idatziz, eta batzarrean emango zaie erantzuna.

**BOST**.- Aurreko lehen zenbakian ezarritako eskubidearen kalterik gabe, kooperatibako boto guztien %10 gutxienez ordezkatzeko duten bazkideek beharrezko iruditzen zaien informazioa eskatu ahal izango dute idatziz edozein unetan. Kontseilu Errektoreak eskatu zaion informazioa idatziz eman behako du, hura eskatu zaionetik hogeita hamar lanegun igaro baino lehen.

**SEI**.- Dena den, Kontseilu Errektoreak, hiru hilabetean behin eta gutxien-gutxienez urtean behin, bazkideei edo hauek ordezkatzeko dituzten organoei kooperatibako gorabehera sozio-ekonomiko nagusien berri eman beharko diete, egokiena iruditzen zaien bidea erabiliz.

**ZAZPI**.- Informazio eskaria gehiegizkoa edo oztopagarria bada edo informazioa ematea kooperatibaren zilegizko interesentzako arriskutsua bada soilik ukatu dezake informazioa Kontseilu Errektoreak. Ez da posible izango salbuespenik, ordea, ukatutako informazioa Batzar Orokorrean eman beharrezkoa izanda, bertaratutako eta ordezkaturako boto guztien erdia baino gehiago informazio eskaria babestu badute. Beste kasu guztietan, ez da halako salbuespenik izango, eskaria egin duten bazkideek errekurtsioa jarri eta Batzorde Orokorra arrazoi dutela erabakiz gero.

Kontseilu Errektorearen ezetza aurkatu egin ahal izango da 4/1993 Legearen 25. artikuluan araututakoaren arabera.

**ZORTZI**.- Honako berme sistema hau eratzen da:

a) Informazioa eskatzen duten bazkideek sinatu egin beharko dituzte informazio eskaerak, beren burua behar den moduan identifikatu beharko dute eta eskaeraren arrazoiak azaldu beharko dituzte.

b) Informazio eskaera gutxienez bazkideen %20k sinatzen badute, informazioa ukatzen duen Kontseilu Errektorearen erabakiak bi hereneko gehiengo kualifikatua beharko du.



c) Kontseilu Errektorearen ezetza hogeit eguneko epean aurkatu daiteke Batzar Orokorrean, erabakia jakinarazi zenetik hasita.

Batzar Orokorrak, gehienez hogeita hamar eguneko epean erabakiko du errekurtsua, aurrez errekurtsu jartzaileari, edo hala badagokio, errekurtsua jartzen duten bost ordezkariari entzunda, gehienez ere.

**BEDERATZI**.- Halaber, berehala eta egiten den lehen Batzarrean jakinarazi beharko zaio Zaintza Batzordeari kooperatibak honako arlo hauetan egiten dituen prozedura edo gestio oro: kooperatiba desegitea, kooperatibaren hezkuntza jarduerak bertan behera uztea eta kooperatibaren hezkuntza titularitatea edo ondarea erakunde publiko edo pribatuei lagatzea.

### **III ATALA. KOOPERATIBA UZTEKO ARRAZOIAK ETA ONDORIOAK**

#### **14. ARTIKULUA. BAZKIDEEK KOOPERATIBA BORONDATEZ UZTEA**

**BAT**.- Bazkideek nahi dutenean utzi ahal izango duten kooperatiba beren borondatez, bi hilabete lehenago administratzaileei idatziz abisu emanez gero; ezinbesteko kausak gertatzen direnean izan ezik.

**BI**.- Aurrez abisu emateko epea ez betetzea arrazoitu gabeko bajatzat hartuko da, kooperatibaren administratzaileek, kasuaren ezaugarriak aztertuta, bestelakorik erabaki ezean. Horretaz guztiaz gainera, bazkideari kooperatiban egin behar zituen lan eta zerbitzu guztiak betearazteko aukera era bada, baita kalte-ordainak eskatzekoa ere.

**HIRU**.- Borondatezko bajak arrazoi gabekoak dira bazkideek kooperatibarekin lehian dauden jarduerak egiten dituztenean.

**LAU**.- Kooperatiba beste sozietate batekin bateratu edo banatuz gero, jarduera aldatuz gero, kooperatibaren objektu soziala nabarmen aldatuz gero, edo kapitalari nahitaezko ekarpen berriak egin behar izanez gero, arrazoituztat hartuko dira erabaki horien aurka botoa eman zuten edo, erabaki horiek hartu ziren Batzar Orokorrera azaldu ez arren, horiekin ados ez dagoela adierazten duten bazkideen bajak.

## **15. ARTIKULUA. BAZKIDEEK KOOPERATIBA NAHITAEZ UZTEA**

**BAT.**- Nahitaez baja hartu beharko dute estatutu hauen arabera bazkide izateko bete behar diren baldintzetako bat betetzen ez duten bazkideek.

Nahitaezko baja administratzaileek erabakiko dute, interesatuari entzunda, ofizioz, edo beste edozein bazkidek edo kaltetuak berak hala eskatuta.

**BI.**- Administratzaileen erabakia bete beharrekoa izango da Batzar Orokorraren berrespena jakinarazten denetik edo errekurtsioak jartzeko epea igarotzen denetik.

Erabakia bete beharrekoa ez den bitartean, bazkideak boto eskubideari eutsiko dio Batzar Orokorrean.

**HIRU.**- Nahitaezko baja justifikatutzat hartuko da bazkideak bazkide izateko baldintzak honako kasu hauetako batengatik galdu ez baditu: kooperatibarekiko obligazioak bete nahi ez izatea edo nahitaezko bajaz bidegabeko onurarik jaso nahi izatea.

**LAU.**- Bazkideren bat bere borondatezko bajaren nahiz nahitaezko bajaren kalifikazioaz edo ondorioez administratzaileek erabakitakoarekin konforme ez badago, errekurtsioa jartzeko aukera izango du Euskadiko Kooperatiben 4/93 Legearen 28. artikuluko araututakoari jarraituz.

## **16. ARTIKULUA. BAZKIDE LAGUNTAILEAK**

**BAT.**- Kooperatibaren estatutu hauen bosgarren artikuluko bigarren zenbakiak aipatutako pertsonak izango dira bazkide laguntzaileak.

**BI.**- Kontseilu Errektoreak hartuko ditu bazkide laguntzaileak onartzeko erabakiak; eta epe jakin baterako bazkideak ere izendatu ditzake.

**HIRU.**- Administratzaileek hartutako erabakiek zehaztuko dituzte onartuen berariazko eskubide eta obligazioak zein lankidetzaren baldintzak. Alabaina, 11. eta 12. artikuluetan

aipatutako eskubideak eta obligazioak izango dituzte, berariazko eskubide eta obligazioekin zein lankidetzaren baldintzekin bateragarriak diren neurrian.

**LAU.**- Bazkide laguntzaile guztiek ezingo dute Batzar Orokorreko edo Kontseilu Errektoreko botoen herena baino gehiago izan.

### **III. KAPITULUA.**

#### **KOOPERATIBAKO ZEHAPEN ERREGIMENA**

##### **17. ARTIKULUA. BAZKIDEEN HUTSEGITEAK**

**BAT.**- Kooperatiban giro ona eta arduratsua bermatzeko eta bazkideen arteko harremana eta kooperatibako kudeaketa ekonomikoa ezergatik ez oztopatzeko, kooperatibako zehapen erregimena garatuko da ondorengo artikuluetan.

**BI.**- Bazkideek egindako hutsegiteak arinak, larriak edo oso larriak izango dira beren garrantzi, asmo edo neurriaren arabera.

a) Honako hauek izango dira hutsegite arinak:

- Kooperatibaren antolamenduko eta garapeneko arauak urratzea.
- Estatutu, erregelamendu eta funtzionamendu arauak gutxienez behin urratzea, barkaezinezko ezjakintasunez.
- Ez agertzea kooperatibako ekitaldietara, eta Batzar Orokorretara batez ere, arrazoizko kausarik gabe.
- Barkaezinezko arduragabekeriak edo axolagabekeriak, kooperatibaren interesak kaltetzen ez badituzte.
- Bazkideak jakinarazpenetarako duen helbidearen aldaketa kooperatibako idazkariari ez jakinaraztea, helbidea aldatu ondorengo bi hilabeteetan.

b) Honako hauek izango dira hutsegite larriak:

- Hutsegite arin bat baino gehiago egitea urtebetean.

- Administratzaileen iritziz, hautatuak izan diren karguak bidezko arrazoirik gabe ez onartzea edo dimititzea.
- Estatutuek ezartzen dituzten obligazio ekonomikoak betetzen atzeratzea.

c) Honako hauek izango dira hutsegite oso larriak:

- Hutsegite larri bat baino gehiago egitea urtebetean.
- Kooperatibako organoek balio osoz hartutako erabakiak nabarmenki ez betetzea.
- Duten ezaugarriengatik, kooperatibaren interesak edo izen ona nabarmenki kaltetu dezaketen ekintzak edo jarduerak egitea.
- Administratzaileen funtzioak bere gain hartzea.
- Kooperatibako postaren edo agiri pribatuen sekretua urratzea, edo horien isilpeko datuak kanpoko pertsoneri jakinaraztea.
- Etengabe egitea kooperatibako helburu sozialen aurka eta jarduera horiek jendaurrean zabaltzea.
- 11. artikuluan jasotako obligazioak behin eta berriz urratzea.
- Kooperatibak bere bazkideekin edo beste pertsona batzuekin dituen harremanetarako beharrezkoak diren agiriak, sinadurak, zigiluak, markak edo antzeko datuak faltsutzea.
- Kooperatibako organoen bileretan, edo kooperatibako objektu sozialari dagozkion lanak, jarduerak edo eragiketak egitean, hitzez edo egintzaz, tratu txarrez jardutea kooperatibako bazkideekin edo langileekin.

## **18. ARTIKULUA HUTSEGITEEN ZEHAPENAK**

**BAT.**- Hutsegite arinengatik:

- Idatzizko ohartarazpena.
- Botoa emateko eskubidea kentzea, urtebeterako, gehienez.

**BI.**- Hutsegite larriengatik:

- Aurreko azpiataleko guztiak.

- Idatzizko ohartarazpena. Administratzaileek hala irizten badiote, jendaurrean jakinarazi ahalko da.
- Botoa emateko eskubidea kentzea, bi urtez, gehienez.
- Kooperatibako edozein organoko kide edo administratzaile izateko gaitasuna kentzea, ondoz ondoko bi hauteskundetan, gehienez.

**HIRU.**- Hutsegite oso larriengatik:

- Bat eta bi azpiataletan azaldutako guztiak.
- Kooperatiba barneko eskubide batzuk edo guztiak kentzea, gehienez 3 urterako.
- Kaleratzea.

## **19. ARTIKULUA. ZEHAPEN PROZEDURA**

**BAT.**- Kontseilu Errektoreak izango du hutsegiteen zigorrak ezartzeko eskumena, aurrez dagokion espedientea ireki ondoren.

Hutsegiteen espedienteen agiri guztien bi ale egingo dira, eta bat bazkidearen espedientearen artxibatuko da.

**BI.**- Kontseilu Errektoreak bere kideen artean aukeratutako instruktore batek —edo hiruk, gehienez— egingo du karguen plegua, eta hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa, zehapen proposamena eta zuribide plegua aurkezteko epea —hamar egunekoa, gutxienez— jakinaraziko dio karguak leporatzen zaizkion bazkideari.

Aukerakoa da bazkideentzat zuribide plegua egitea, eta plegu hori Kontseilu Errektoreari aurkeztu beharko diote. Kontseiluak, interesatuari entzun ondoren, hutsegiteari buruzko erabakia hartuko du, eta zehapenaren behin betiko kalifikazioa eta zehapena ezarriko ditu.

**HIRU.**- Kontseilu Errektoreak hutsegite larrien eta oso larrien zehapenei buruz hartutako erabakiak Batzar Orokorrean errekurritu daitezke, erabakia jakinarazi eta 30 eguneko epean. Interesatuak hartutako erabaki horiek aurkatu ahal izango dituzte Legeko 39. artikulua araututako auzi bideari jarraituz.

**LAU.**- Hutsegite arinak gertatu eta hilabetera preskribitzen dira, larriak bi hilabetera, eta oso larriak hiru hilabetera.

Preskripzio epea Kontseilu Errektoreak hutsegitearen berri izaten duen unetik hasten da, eta, betiere, hutsegitea egin eta 12 hilabete igaro ondoren.

Preskripzio epea zehapen prozedura hastean etengo da, eta berriz hasiko da kontatzen lau hilabetearen erabakia hartu eta jakinarazten ez bada.

**BOST.**- Zehapen guztiak errekurtsio epeak errekurtsorik jarri gabe agortu ondoren edo behin betiko erabakia hartzen denetik izango dira nahitaez bete beharrekoak.

## **20. ARTIKULUA. KALERATZEA**

**BAT.**- Bazkide bat kaleratzea estatutuetan jasotako hutsegite oso larriagatik baino ezin izango dute erabaki administratzaileek, horretarako izapidetutako espedientearen bidez eta interesatuarekin hitz egin ondoren.

**BI.**- Bazkideek kaleratze erabakiaren aurkako errekurtsioa jarri ahal izango diote Batzar Orokorrari, jakinarazpena jaso eta 30 egun baino lehen.

**HIRU.**- Errekurtsioa aurkeztu eta hiru hilabete baino lehen erabaki beharko da, isilpeko bozketa bidez eta alde zuzenetik interesatuari entzun ondoren. Epe hori igaro eta ezer erabaki edo jakinarazi ez bada, errekurtsioa onartutzat hartuko da.

**LAU.**- Kaleratze erabakia Batzar Orokorrek berretsi edo errekurtsioak jartzeko epea igaro ondoren izango da nahitaez bete beharrekoa.

**BOST.**- Batzar Orokorrek berretsitako kaleratze erabakia ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 39. artikulua araututako auzi bideari jarraituz aurkatu ahalko da.

### **III. KAPITULUA.**

#### **KOOPERATIBAREN KUDEAKETA ETA ORDEZKARITZA**

##### **21. ARTIKULUA. KOOPERATIBAREN ORGANOAK**

**BAT.**- Kooperatibak honako organo hauek izango ditu:

- \* Batzarra.
- \* Kontseilu Errektorea.
- \* Zaintza Batzordea.

**BI.**- Kooperatibak egoki irizten dien organoak sortu ditzake bere jarduerak eta objektu soziala garatzeko, eta kasu bakoitzean erabakiko du zer ahalmen izango duten organo horiek, Legeak beharrezko organoei berariaz esleitzen dizkienek izan ezik.

Administrazio publikoaren hezkuntza kontzertuen erregimenean organoei buruz ezartzen dituzten baldintzak betetzeko beharrezkoak diren organoak izango ditu kooperatibak, betiere.

##### **22. ARTIKULUA. BATZAR OROKORRA**

**BAT.**- Batzar Orokorra bazkideen bilkura da, eta bere eskumenekoak diren gaiez eztabaidatu eta erabakiak hartuko ditu.

**BI.**- Bazkide guztiek bete beharko dituzte Batzar Orokorraren erabakiak, hartzen diren unetik beretik, 28. artikuluan jasotakoaren kalterik gabe.

**HIRU.**- Batzorde Orokorraren ardura eskusiboa izango da honako gai hauei buruzko erabakiak hartzea:

- a) Kontseilu Errektoreko kideak, Zaintza Batzordeko kideak eta likidatzaileak isilpeko botoen bidez izendatzea eta kargutik kentzea, bai eta horiei erantzukizunak eskatzea ere.

- b) Kontu ikuskatzaileak izendatu eta kargutik kentzea. Azken hori bidezko arrazoiren bat dagoenean soilik egin daiteke.
- c) Sozietatearen kudeaketa aztertu, urteko kontuak eta balantzea onartu, eta gaindikinak nola banatu eta galerak nola egotzi erabakitzea.
- d) Nahitaezko ekarpen berriak, kapitalean egindako ekarpenen interesak eta sarrerako zein aldizkako kuotak zein izango diren onartzea.
- e) Obligazioak, partaidetza tituluak edo partaidetza bereziak jaulkitzea.
- f) Kooperatiba beste batzuekin elkartu, banatu, eraldatu edo desegiteari buruzko erabakiak hartzea.
- g) Bigarren mailako kooperatibak, kooperatiba bazkunak eta antzeko erakundeak eratzea, bai eta horiekin elkartzea edo horietatik banatzea ere.
- h) Kooperatibaren egitura ekonomikoaren, antolaketaren eta funtzioen oinarrizko aldaketa eragin ditzaketen erabakiak onartzea, besteak beste:
  - \* kooperatibaren aktiboen erdia baino gehiago besterentzea,
  - \* merkataritza sozietatea edo sozietate zibil bihurtzea, eta
  - \* objektu sozialaren aldaketak, kooperatibaren sorrerako jarduerak desagertzea badakarte.
- i) Estatutuak eta barne araudia onartzea edo aldatzea.
- j) Legeak edo estatu hauek ezartzen dituzten gainontzekoak.
- k) Kooperatibaren politikak eta estrategiak onartzea, urteko edo urte anitzeko planetan sartzeko.

**LAU.**- Batzar Orokorrak kooperatibarentzat interesgarriak diren gai guztiez eztabaidatu ahal izango du, baina sozietateko beste organo baten eskumen eskusibokoak ez diren gaietan soilik hartu ahal izango ditu nahitaez bete beharreko erabakiak.

**BOST.**- Araudiaren arabera erabakia hartzea nahitaezkoa duen eginbideetan, Batzar Orokorraren eskumenak besterenezinak izango dira; kooperatibak bateratzeko prozesuei buruz 4/1993 Legeak araututakoan izan ezik.

### **23. ARTIKULUA. BATZAR OROKOR MOTAK**

**BAT.**- Batzar Orokorrak ohikoak edo apartekoak izan daitezke.



**BI.**- Ohiko Batzar Orokorren helburu nagusia kooperatibaren kudeaketa aztertu, bidezkoa bada urteko kontuak onartu eta, hala badagokio, gaitzak nola banatu eta galerak nola egotzi erabakitzea da. Bestalde, Batzarraren eskumenekoa den beste edozein gai gehitu ahal izango da gai zerrendara.

**BI.**- Beste Batzar Orokorrak guztiak apartekoak dira.

#### **24. ARTIKULUA. BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA**

**BAT.**- Batzar Orokorrerako deialdiak Kontseilu Errektoreak egingo ditu, urteko ekitaldia amaitu eta hurrengo sei hilabeteak igaro baino lehen, kooperatibaren kudeaketa aztertzeko, hala badagokio urteko kontuak onartzeko, gaitzak nola banatu edo galerak nola egotzi erabakitzeko, edo gai zerrendan jasotako beste gaiak eztabaidatu eta erabakitzeko.

Batzarraren eskumenekoa den beste edozein gai gehitu ahal izango da gai zerrendara.

**BI.**- Aurreko zenbakian jasota ez dauden Batzar Orokorrak apartekoak izango dira, eta Kontseilu Errektoreak eskatuta bilduko da Zaintza Batzordea, edo botoen gutxienez %20 ordezkatzen duten bazkideek hala eskatuta. Horretarako, fede ematen duen eskaera bat helarazi beharko diote Kontseilu Errektoreari, eztabaidarako gaiak eta proposamenak biltzen dituen gai zerrendarekin batera.

Gai zerrendako gai guztiak eztabaidatu ahalko dira Aparteko Batzar Orokorreran; Ohiko Batzar Orokorrari dagozkionak barne hartuta, hura behar zen garaian egin ez bazen.

**HIRU.**- Ohiko Batzar Orokorra biltzeko deialdia legezko epean egiten ez bada, edozein bazkidek egin ahal izango du deialdia. Horretarako, fede ematen duen eskari bat egin beharko zaio Kontseilu Errektoreari, eztabaidarako gaien eta proposamenen gai zerrendarekin batera. Eskaera jaso eta hogeita hamar egun igaro ondoren, Batzar Orokorra biltzeko deialdirik egiten ez bada, epitegietan eska daiteke deialdia egiteko.

**LAU.**- Batzar Orokorrerako deialdia kooperatibaren helbide sozialean eta hezkuntza zentro guztietan jarritako iragarki baten bidez egingo da; bai eta Gipuzkoako lurralde historikoan hedapen handia duten bi egunkaritan ere, kooperatibak 500 bazkide baino gehiago baditu.

Deialdian Batzarra zein egunetan, zein ordutan eta non izango den zehaztu behako da, gutxienez, eta zehaztasunez adierazi beharko dira gai zerrenda osatzen duten gaiak.

Deialdia Batzarra egin baino hamar egun lehenago gutxienez eta hirurogei egun lehenago gehienez jarri beharko da kooperatibaren helbide sozialean.

**BOST.**- Deialdia iragarri eta ondorengo bost egunetan, botoen %20 baino gehiago ordezkatzeko duten bazkideek gai zerrendan gai bat edo gai batzuk sartzea eska dezakete Kontseilu Errektoreari egindako idatzizko eskaera baten bidez. Kontseilu Errektoreak gai zerrendan sartu beharko ditu gai berriak, legez eskatutako publizitate berarekin eta Batzarra egin baino lau egun lehenago, gutxienez.

**SEI.**- Atal honetako aurreko zenbakietan araututakoaren kalterik gabe, batzarra baliozkoa izango da eta ez da deialdi beharrik izango, bazkide guztiak bilduta edo ordezkatuta egonda, aho batez batzar unibertsala eratzea erabakitzen badute. Denek onartu eta izenpetu beharko dute gai zerrenda eta bertaratutakoena, baina gero ez dute guztiek bertan geratu beharrik izango.

## **25. ARTIKULUA. BATZAR OROKORRAREN FUNTZIONAMENDUA**

**BAT.**- Batzar Orokorra kooperatibaren helbide soziala dagoen herrian egingo da, lokal egokirik ez dagoelako Kontseilu Errektoreak inguruko beste herri batean egitea erabakitzen ez badu, behintzat.

**BI.**- Batzar Orokorra balioz osatuta egoteko, lehenengo deialdian botoen gehiengoa izan beharko da bertan edo ordezkatuta, eta bigarren deialdian, gutxienez botoen %10 osatzen duten bazkideak bertan izanda edo ordezkatuta, edo 100 botorekin, bestela.

Batzar Orokorrerako deialdia egin zenean bazkide zirenek izango dute batzarrera joateko eskubidea, eskubide hori etenda dutenek izan ezik.

Estatutuetan norberak joan beharra eskatzen den kasuetan izan ezik, bazkide batzuek beste batzuei eman ahal izango diete beren ordezkariak. Ordezkariak hori berezia izango da batzar bakoitzerako eta gai zerrendan jasoko den idatziaren bidez egin beharko da.

Bazkideek ezin izango dute, bakoitzak berez gainera, bi ordezkariak baino gehiago izan. Ordezkariak ezeztatu egin daitezke. Ordezkariak Batzar Orokorreko joaten bada, balioa kenduko dio ordezkariari.

**HIRU.**- Kontseilu Errektoreko presidentea izango da Batzar Orokorreko burua. Horrek ezingo balu, berriz, presidenteordea, eta horrek ere izaterik ez balu, Batzarrak hautatutako bazkideak beteko luke funtzio hori.

Honako hauek dira presidentearen egitekoak: eztabaidak bideratu, bere erantzukizunpean izango da gai zerrendan jaso gabeko gaiak ez erabakitzea eta eztabaidatzen diren gaietatik ez ateratzea, Batzarra behar bezala burutu dadin zaintzea eta legezko izapideak betearaztea.

Kontseilu Errektoreko idazkaria izango da Batzarreko idazkaria; edo hark ezingo balu, Batzar Orokorreko izendatutako bazkidea.

**LAU.**- Gai zerrendan jaso gabeko gaiak buruzko erabakiak baliorik gabekoak izango dira, Legeak berariaz erabakiak hartzea baimentzen duen kasuetan izan ezik.

**BOST.**- Kontseilu Errektoreko kideek Batzar Orokorretara joan beharra izango dute; eta Kontseilu Errektoreak hala erabakitzen badu, bazkide ez diren pertsonak ere izan daitezke Batzarrean.

**SEI.**- Idazkariak idatziko du batzarreko akta, eta honako datu hauek jasoko ditu bertan: bilera egin zeneko eguna eta data; deialdia noiz egin den, zein modutan eta deialdiaren testu osoa; bertaratu diren eta ordezkatuak izan diren bazkideen kopurua; lehen edo bigarren deialdia ote den; eztabaidatu diren gaien laburpena; aktan jasotzea eskatu diren interbentzioak; hartutako erabakiak; bozketen emaitzak, eta aktaren onarpena, bilera amaitu eta gero egiten denean.

Batzarrak berak onar dezake presidenteari eta Batzarrak izendatutako bi bazkidek akta batzarra amaitu eta gero, edo bestela, hurrengo hamabost egunetan onartu behar

duten. Azken kasu horretan, idazkariaz gain, aipatutako horiek guztiek izenpetuko dute akta.

Batzar Orokorrera joandako edonork izango du aktaren testu osoaren ziurtagiriak jasotzeko eskubidea. Ziurtagiria egiten den garaiko idazkariak egingo du, presidentearen oniritziarekin, ziurtagiria.

**ZAZPI.**- Erabakiak hartzen direnetik izango dira bete beharrekoak.

**ZORTZI.**- Inskribagarriak diren erabakiak akta onartu eta hogeita hamar eguneko epean aurkeztu beharko dira Kooperatiben Erregistroan.

## **26. ARTIKULUA. BOTO ESKUBIDEA**

**BAT.**- Bazkide bakoitzak boto bana izango du.

**BI.**- Bazkideek ezingo dute botorik eman interes gatazka sortzen duten honako kasu hauetan:

- a) hartu behar den erabakiak zuzenean edo zeharka eragiten badiete, espedientatutako gehiengoaren parte direnean izan ezik; eta
- b) kooperatibak jarritako erantzukizun akzio baten subjektu direnean.

## **27. ARTIKULUA. GEHIENGOAK**

**BAT.**- Batzar Orokorreko erabakiak bertaratutako eta balio osoz emandako botoen gehiengo soiluz hartuko dira; indarrean dagoen araudiak edo estatutuek gehiengo handiagoa eskatzen duenetan izan ezik.

**BI.**- Nolanahi ere, batzarrean daudenen edo ordezkaturakoen botoen bi hereneko gehiengoz hartu beharko dira honako erabaki hauek: sozietatea eraldatu, bateratu, banatu edo desegitea; edo hezkuntzako titularitatea laga eta estatutuen artikulua hau aldatzen dutenak, bertaratu edo ordezkaturakoen boto kopurua kooperatibako boto guztien ehuneko hirurogeita hamabost baino txikiagoa baldin bada.

**HIRU.**- Kontseilu Errektoreko kideak kargugabetzeko erabakiak bertaraturako eta ordezkaturako botoen bi hereneko gehiengoz hartu beharko dira, eguneko gai zerrendan ez bazeuden.

## **28. ARTIKULUA. BATZAR OROKORRAK HARTUTAKO ERABAKIAK AURKATZEA**

**BAT.**- Batzar Orokorraren erabakiak Legearen nahiz estatutuen aurkakoak edo bazkide baten, batzuen nahiz beste pertsona batzuen mesedetan, kooperatibaren interesen aurkakoak baldin badira, aurkatu egin ahal izango dira.

Legearen aurkako erabakiak baliogabeak izango dira; aurrez aipaturako besteak, berriz, deuseztagarriak.

Baliogabe utzitako edo baliozko beste baten bidez ordezkaturako erabakiak ezingo dira aurkatu.

**BI.**- Honako hauek dute **erabaki baliogabeak aurkatzeko** legitimazioa:

- a)* bazkide guztiak,
- b)* Kontseilu Errektoreko kideak,
- c)* Zaintza Batzordeko kideak,
- d)* legezko interesa duen beste edozeinek.

Erabakiak aurkatzeko akzioa urtebetera iraungiko da; erabakiaren ondorioak edo edukiak ordena publikoaren aurkakoak direnean izan ezik.

**HIRU.**- Honako hauek dute **erabaki deuseztagarriak aurkatzeko** legitimazioa:

- a) Batzar Orokorreko bilera aktan erabakiarekin bat ez zetoze adierazi zuten bertaratutako bazkideek,
- b) bertaratu ez zirenek eta bidezko arrazoirik gabe botoa ematen utzi ez zitzaizkienek,
- c) Kontseilu Errektoreko kideek,
- d) Zaintza Batzordeko kideek.

Erabakiak aurkatzeko akzioa 40 egunera iraungiko da.

**LAU.**- Artikulu honetan jasotzen diren iraungitze epeak erabakiak hartzen direnetik hasita edo, erregistroan izen-ematekoa baldin bada, Kooperatiben Erregistroan inskribatzen denetik hasita zenbatuko dira.

**BOST.**- Erabakiak aurkatzeko akzioak 4/1993 Legearen 39-7 artikuluan araututakoaren arabera tramitatuko dira.

**SEI.**- Aurkatze akzioa onartzen duen epaiak bazkide guztiengan izango du eragina.

## **29. ARTIKULUA. KONTSEILU ERREKTOREA. IZAERA ETA ESKUMENAK**

**BAT.**- Kontseilu Errektorea kooperatiba kudeatzeko eta ordezkatzeko eskumen eskusiboa duen organoa da, eta bereak izango dira kooperatibako beste organo baten esku berariaz uzten ez diren bere eskumen guztiak ere.

**BI.**- Kontseilu Errektorearen eskumena dira berariazko ahalmen hauek:

- a) Bazkideen onarpena eta bajak erabakitzea, estatutu hauetan araututakoari jarraituz.
- b) Kooperatiba delegazio ahalmen eta erantzukizun osoz ordezkatzeko edozein egintza edo kontratutan; eta parte hartzen duen erakundearen organoen aurrean, batez ere.
- c) Bazkideak ordezkatzeko dituzten organoei galdetu ondoren, Zuzendaria edo/eta Gerentea izendatzea; bai eta Zuzendari-Gerentearen proposamenez, sailtako zuzendariak izendatzea, kargutik kentzea eta beraien ahalmenak, egitekoak

eta ordainsariak finkatzea. Hala badagokio, azken horien aurkako erantzukizun akzioak erabiltzea.

- d)** Pertsonalaren lankidetzaren baldintzak eta baldintza ekonomikoak adostea.
- e)** Estatutuaren eskubide eta obligazioekin zerikusia duten gaiak erabakitzea; bai eta lanaren antolaketarekin eta bazkideen lan eta diziplina erregimenarekin zerikusia dutenak ere.
- f)** Kooperatibaren ibilbidea antolatzea, zuzentzea, kudeatzea eta ikuskatzea; eta Batzar Orokorrari aurkeztea, Kontseilu Errektoreak onartu eta gero, urteko kudeaketa planak eta Kooperatibaren politika eta estrategia orokorrak jasotzen dituzten epe luzeako plan estrategikoak.
- g)** Kontseilariaren dimisioei eta plaza hutsen horniketari buruzko erabakiak hartzea; bai eta, oro har, organoaren bereren barne funtzionamenduko erregulazioari buruzkoak ere. Halaber, egokiak diren edo/eta bere eskumenekoak diren erabakien deuseztapen akzioak erabiltzea izango da beste funtzioetako bat.
- h)** Kooperatibako estatutuen eta barne araudiaren aldaketak proposatzea Batzar Orokorrari.
- i)** Estatutuaren edo erregelamenduetako arauak aplikatzeko, edo Batzar Orokorraren erabakiak aurrera eramateko beharrezkoak diren funtzionamenduko araudiak onartzea.
- j)** Objektu soziala lortzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren akzioak burutzea edo kontratuak egitea, bai ondasun higiezinak erostea edo besterentzea, bai eskubide errealek eratzea —hipotekak eta, alokairuak batez ere—; bai eta estatutuek kooperatibari egitea baimentzen dizkion negozio edo eragiketa guztiei buruz erabakitzea ere.
- k)** Kooperatibak adostu ditzakeen eta Batzar Orokorrari ez dagozkion kreditu, mailegu edo sinadurapeko berme eragiketak hitzartzea.
- l)** Erakunde publiko eta pribatuen aurrean abalak eskaintzea; bai eta zuzenbideak onartzen dituen edozein zor publikoko, balio higiezinako edo higikorreko titulu erostea, saltzea, harpidetzea edo horien gordailua egitea. Titulu horiek egoki irizten dion moduan afektatzeko aukera ere izango du.
- m)** Ekarpenak harpidetzeko eta Bonoak eta Obligazioak jaulkitzeko beharrezkoa dena zehaztea, Batzar Orokorrak erabakitakoaren arabera.

- n) Kooperatibako dirua zehazki non inbertitu behar den erabakitzea, aurrekontuak egitea, gastuak baimentzea eta kooperatibako ordezkariak eta ahalordeak izendatzea, kasu bakoitzean egoki irizten dien eskumenak emanaz.
- o) Urteko kontuak aurkeztea Ohiko Batzar Orokorrari, eta gaindikin garbien banaketa edo galeren egozketa proposatzea.
- p) Batzar Orokorrerara deitzea, batzarrean gertatzen diren auziak erabakitzea eta bertan hartutako erabakiak gauzatzea.
- q) Honako arlo hauetan kooperatibari dagozkion eskubideak eta akzioak erabiltzeari buruzko erabakiak hartzea: epaitegi eta auzitegi arruntak eta bereziak, eta estatuko, autonomia erkidegoetako administrazioetako, probintzietako edo udalerrietako bulego, agintari, korporazio edo erakundeak. Era berean, errekurso arruntak eta aparteko errekursoak jartzeko aukerari buruzko erabakiak hartuko ditu; eta horretarako, ordezkari, prokuradore eta abokatuak izendatu ditzake, kooperatiba ordezkari deitzen, eta beharrezkoa den moduan, dagozkion ahalmenak eman ahalko dizkie, bai edozein adiskidetze, espediente, auzi, erreklamazio, errekurso edo eginbidetan eta prozedurako edozein unetan atzera egin edo amore emateko, bai horien etena eskatzeko edo beharrezkoa litzatekeen guztirako, auzi bideetako moldatze jardura guztiak barne.
- r) Kooperatibako diru eta ondasunak xedatu, galdatu, jaso eta kobratzea, partikularren zein bulego publikoen eskutik, Kutxa Orokorrean edo kooperatibaren interesentzat egokien diren guneetan gordailuak egin edo aterezaz. Kontu korranteak irekitzea bankuetan, bai agerikoak, kreditu edo baloreetakoak, eta horietatik dirua edo baloreak ateratzea; eta, oro har, banku eragiketa guztiak egitea estatuko edo atzerriko banketxeetan, Espainiako Bankua barne.  
Korrespontsalen esku dauden kooperatibaren diru eta ondasunak xedatzea. Kanbio letrak, agindurako ordaindukoak eta beste merkataritzako eta igorpeneko efektuak libratzea, endosatzea, abalatzea, onartzea eta ordainketa edo onarpen ezagatik eta segurtasun handiagoa eskatzegatik protesta egitea.
- s) Ahalordeak ematea pertsona jakinei, gauza zehatzak egiteko edo kooperatibaren jardueraren zenbait arlo zuzentzeko.
- t) Hala badagokio, ordainketen etendura, kiebra edo kooperatibaren desgitearen espedienteak proposatzea Batzar Orokorrari, eta prozesu horietan bere eskumenekoak diren faseak betetzea.



- u) Estatutuen interpretazioari buruzko zalantzak argitzea, eta horien berri ematea lehen Batzar Orokorrean.
- v) Estatutu hauek berariaz esleitzen dizkietenak.

**HIRU.**- Kontseilu Errektorearen ahalmen horiek adierazpidezkoak dira soilik, eta ez ditu Kontseiluaren ahalmenak mugatzen Legeak kooperatibako beste organo batzuen eskumen eskusibokoak ez diren beste jardueretarako.

### **30. ARTIKULUA. KONTSEILU ERREKTOREAREN OSAERA, IZENDAPENAK, KARGUTIK KENTZEA ETA PLAZA HUTSAK BETETZEA**

**BAT.**- Kontseilu Orokorra 8 kidek osatuko dute, horietatik bat Presidentea, bestea Presidenteordea eta beste bat Idazkaria izango dira. Ez da ordezeko bokalik izendatuko.

Kontseilu Orokorreko kideen agintaldia lau urtekoa izango da, eta partzialki berrituko dira erdiak bi urtean behin. Berriz hautatuak izateko aukera egongo da.

Izendapenari zegokion epea igaro ondoren ere, beren karguan jarraituko dute kontseilariek, kide berriek beren kargua Batzar Orokorrean onartzen duten arte.

**BI.**- Kontseilu Errektoreko kideen izendapena berauek onartzen dutenetik jarriko da indarrean, eta kargua onartzen denetik hogeita hamar eguneko epean aurkeztuko da Kooperatiben Erregistroan izena emateko.

Edozer dela ere kontseilariren bat kargutik kentzen dutenean, besteekiko eragina Kooperatiben Erregistroan izena eman ondoren baino ez du izango.

**HIRU.**- Kontseilu Errektorearen baitan hautatuko ditu Presidentea, Presidenteordea eta Idazkaria Kontseilu Errektoreak berak.

**LAU.**- Ezintasunak eta debekuak:

1. Honako hauek ezin izango dute administratzaile izan:

- a) Berriz gaitu gabeko porrot egindakoek eta konkurtsatutakoek, adingabeek eta ezgaituek, kargu publikoetan jardutea galarazten duten zigorrak betetzen ari direnek, lege edo gizarteko arauetan nabarmen huts egin izanagatik zigorren bat jaso dutenen eta beren kargua dela eta irabaziak ematen dituzten diru jarduerak burutzerik ez dutenek.
- b) Funtzionarioek eta administrazioarentzat lanean dihardutenek, kasuan kasuko kooperatibaren berezko jarduerekin zerikusia duten egitekoak baldin badituzte.
- c) Beren edo besteren kontura arituz, kooperatibarekin lehian dauden jarduerak burutzen dituztenek, edo modu batera edo bestera kooperatibaren aurkako interesak dituztenek.
- d) Zaintza Batzordeko kideek eta zuzendari-gerenteek.
- e) Estatutuetan jasotzen diren egoeretako batean daudenek.

2. Artikulu honetan aipatzen den ezintasun edo debekuren batek eragingo balio administratzailearen bati, berehala utzi beharko luke bere kargua. Dena den, bere kargua aldi batez uztera behartu ahal izango du Zaintza Batzordeak hurrengo Batzar Orokorra egin arte. Kautelazko etena gauzatu edo edozein bazkidek eskatuta utzi bada kargua, Batzar Orokorrak kargutik kenduko du administratzailea, aurreko zenbakiko c) azpiatalean araututako kasuan izan ezik; kasu horretan kargutik kendu edo jarraitu egin behar duen bere kabuz erabakiko du Batzar Orokorrak.

### **31. ARTIKULUA. KONTSEILU ERREKTOREAREN FUNTZIONAMENDUA**

**BAT.**- Kontseilu Errektorea bi hilabete behin bilduko da gutxienez —kooperatibaren jarduera nagusia oporregatik etenda dagoenean izan ezik—; eta Presidenteak bere kabuz edo Kontseiluko kideen herenak gutxienez hala eskatuta deialdia egiten duenean, betiere. Kontseilu Errektorearen bilkuretan bere eskumenei dagozkien gai oro eztabaidatu eta erabaki daitezke.

**BI.**- Kontseilu Errektorea biltzeko deia Presidenteak egingo du, Kontseiluko kide bakoitzari helarazitako idatzi baten bidez.

**HIRU.**- Kontseilu Errektorea balio osoz eratzeko, kideen erdiak baino gehiagok joan beharko dute bilkurara. Kontseilura norberak aurkeztu beharko du, ordezkartzarik eman

gabe, eta erabakiak Kontseilura bertaratu direnen gehiengo soilez hartuko dira. Kontseilari bakoitzak boto bakarra izango du.

Bertaratutakoen bi herenen aldeko botoak behar izango dira gutxienez, jarraian aipatzen diren erabakiak hartzeko:

- a) Jarduera zentro nagusi bat edo haren zati garrantzitsu bat itxi edo lekuz aldatzeko.
- b) Kooperatibaren jardueran murrizketa, zabalpen edo aldaketa nabarmenak egiteko.
- c) Kooperatibaren antolaketan garrantzi handiko aldaketak egiteko.
- d) Beste erakunde batzuekin, kooperatiba edo bestelakoekin, kooperatibarentzat etengabeko eta balio handiko elkarlana ekarriko duten harremanak sortzeko edo desegiteko.

Presidentearen botoak erabakiko ditu berdinketak.

**LAU.**- Kontseilu Errektoreak bere baitan batzorde exekutibo edo kontseilari ordezkari bat izendatu dezake; horretarako, Kontseilua osatzen dutenen bi herenen aldeko botoa jaso beharko da eta notario aurrean formalizatu beharko da, baina ez dute eraginik izango Kooperatiben Erregistroan inskribatu arte.

**BOST.**- Bilkurako akta Presidenteak eta Idazkariak izenpetuko dute, eta honako datu hauek azalduko ditu: izandako eztabaidak, labur, erabakien testuak eta bozketen emaitzak.

**SEI.**- Honako hauek dira Kontseilu Errektoreko Presidentearen egitekoak:

- a) Kooperatiba esparru guztietan ordezkatzea, Kontseilu Errektorearen izenean, bai eta Kontseiluko eta Batzar Orokorreko buru izatea ere.
- b) Ahalordeak ematea eta agiri publiko edo pribatuak sinatzea, Batzar Orokorrek edo Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiak betetzeko.
- b) Kontseilu Errektoreko erabakien bozketan berdinketarik izanez gero, bere botoarekin erabakitzea.
- d) Urgentziazko erabakiak hartzea. Erabaki urgente bat hartu ondoren berehala eman behako du horren berri Batzar Orokorren lehen bileran.

- e) Ordainketak bere sinadurarekin baimentzea.
- f) Kontseilu Errektoreak bere esku uzten dituen eragiketak, gestioak eta egitekoak burutzea.
- g) Presidenteordearen esku uztea ordezkari funtzioak, berak joan ezin duenean edo ez joateko bidezko kausaren bat duenean.

**ZAZPI.**- Presidenteordeak Presidentea ordezkari du eta Presidenteari dagozkion egitekoak beteko ditu jarduneko gisa. Halaber, Presidenteak eta Kontseilu Errektoreak bere esku uzten dituzten egitekoak eta gestioak egingo ditu; Presidenteak Kontseilu Errektoreko beste kideen esku utzitakoak, batez ere.

**ZORTZI.**- Honako hauek dira Idazkariaren egitekoak:

- a) Espedienteak osatzea eta horiei dagozkien tramiteak egitea.
- b) Presidenteak edo Presidenteordeak izenpetu beharrekoak ez diren agiriak eta gutunak sinatzea.
- c) Batzar Orokorreko eta Kontseilu Errektoreko deialdiak idaztea eta bidaltzea.
- d) Aurrez esandako organoen bilkuren aktak egitea.
- e) Artxiboaren, erregistro liburuen eta Batzar Orokorreko eta Kontseilu Errektoreko akta liburuen gordailuzaina izatea.
- f) Presidentearen oniritziaz, kooperatibako liburuen eta agirien ziurtagiriak egitea.
- g) Kontseilu Errektoreak bere esku uzten dituenak.

## **32. ARTIKULUA. KONTSEILARIEN ERANTZUKIZUNA**

**BAT.**- Kontseilu Errektoreko kideek ez dute berariazko ordainsaririk jasoko betetzen duten kargua dela eta; gehienez ere, beren funtzioak betetzeak eragiten dizkien gastuak ordainduko zaizkie.

**BI.**- Kontseilu Errektoreko kideek ordezkari leial eta kudeatzaile arduratsuen zuzentasunez beteko dituzte beren karguak, eta legeen edo estatutuen aurka edo beharrezko ardurarik gabe egindako ekintzek eragiten dituzten kalteez erantzungo dute.

Solidaritate legez erantzun beharko dute ekintza kaltegarria burutu edo horrelako erabakia hartu zuen organoko kide guztiek, erabakia hartzean edo burutzearekin zerikusirik izan ez eta halakorik bazenik ere ez zekitela argi uzteko moduan direnak izan ezik, edo, nahiz eta ezagutu, kalterik izan ez zedin ahalegin guztiak egin zituztenak edo, gutxienik, horien aurka argi agertu zirenak izan ezik.

Erantzukizuna berbera izango da ekintza edo erabaki kaltegarria Batzar Orokorrak hartua, baimendua edo berretsia bada ere.

### **33. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUN AKZIOA**

**BAT.**- Kontseilu Errektoreko kideen aurkako erantzukizun akzioa kooperatibaren esku izango da; eta, horretarako, aurrez Batzar Orokorrak gehiengo soilez erabaki beharko du akzioa aurrera eramatea, nahiz eta eguneko gai zerrendan gaia agertu ez. Batzar Orokorrak edonoiz emango dio baiezkoa nahiz ezezkoa akzioa aurrera eramateari. Batzar Orokorrak akzioa bultzatzea erabakitzen badu, berehala kenduko dira kargutik Kontseilu Errektoreko kaltetutako kideak.

**BI.**- Batzar Orokorrak erantzukizun akzioa erabiltzeko erabakia hartu eta ondorengo hiru hilabeteetan erantzukizun akzioa jarriko ez badu, edozein bazkidek jarri ahal izango du.

**HIRU.**- Akzioa iraungita geratuko da erantzukizuna eskatzeko arrazoi diren ekintzak gertatu edo ezagutu direnetik bi urtera.

**LAU.**- Aurreko puntuetan ezarritakoa kontuan izan behar bada ere, horietatik kanpo gelditzen dira bazkideei dagozkien norbanako akzioak, Kontseilu Errektorearen ekintzek haien interesak zuzenean kaltetzen badituzte.

### **34. ARTIKULUA. ERABAKIAK AURKATZEA**

**BAT.**- Aurkatu egin ahal izango dira Kontseilu Errektorearen edo Batzorde Eragilearen erabakiak, Legearen edo estatutuen aurkakoak badira, edo bazkide baten edo batzuen mesedetan, edo bazkide ez direnen mesedetan, eta kooperatibaren kaltetan hartu badira.

Legearen aurkako erabakiak baliogabeak izango dira, eta aipatutako beste guztiak, berriz, deuseztagarriak.

Ezingo dira aurkatu eraginik gabe utzi diren erabakiak edo baliozkoa den beste erabaki batez ordeztu direnak.

**BI.**- Honako hauek dira erabaki baliogabeak aurkatzeko akzioa erabiltzeko legitimazioa dutenak:

- a) bazkide guztiak, erabakiaren berri izan eta 60 eguneko epean, erabakia hartu eta urtebete igaro baino lehen, betiere,
- b) Kontseilu Errektoreko kideak, erabakia hartu eta 60 eguneko epean,
- c) Zaintza Batzordea, b) puntuko epe berean.

**HIRU.**- Honako hauek dira erabaki deuseztagarriak aurkatzeko akzioak erabiltzeko legitimazioa dutenak:

- a) botoen %10 ordezkatzeko duten bazkideak, Bigarren zenbakiko a) puntuko epe berean,
- b) Kontseilu Errektoreko kideak, Bigarren zenbakiko b) puntuko epe berean,
- c) Zaintza Batzordea, b) puntuko epe berean.

**LAU.**- Aurkatzeak zehaztuta dauden ondorioak izango ditu, eta Batzar Orokorraren erabakiak aurkatzeko araututako bidetik —Estatutuen 28-Bost artikulua— izapidetuko da.

### **35. ARTIKULUA. ZUZENDARITZA. IZENDAPENA ETA KARGUTIK KENTZEA**

**BAT.**- Kontseilu Errektoreak Zuzendari edo/eta Gerente bat izendatu dezake, aurrez bazkideen ordezkapen organoekin kontsultatu ondoren.

Zuzendari-Gerenteak Kontseilu Errektoreak ematen dizkion ahalmenak eta botereak izango ditu, eta haren kontrolpean egongo da zuzenean eta etengabe.

**BI.**- Bere izendapena, ahalordea eta kargugabetzea, horren arrazoia edozein dela ere, Kooperatiben Erregistroan inskribatuko da.

**HIRU.**- Kontseilu Errektoreak Zuzendari-Gerentea hitzartutako epea baino lehen kargutik kentzea erabaki dezake.

#### **IV. KAPITULUA.**

### **ZAINTZA BATZORDEA**

#### **36. ARTIKULUA. OSAERA, AGINTALDIA ETA IZENDAPENA**

**BAT.**- Batzorde Orokorrak hiru urterako izendatuko ditu Zaintza Batzordea osatuko duten hiru kideak. Horretarako, estatutu hauen arabera bateraezintasun egoeran ez dauden eta beren eskubideak etenda ez dituzten bazkideen artean aukeratuko du, isilpeko bozketaren bidez..

**BI.**- Zaintza Batzordeko kideek Kontseilu Errektoreko kideek duten erantzukizun, ordainsari, ezintasun, debeku eta erregistroan inskribatzeko arau berak bete beharko dituzte.

#### **37. ARTIKULUA. INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA**

**BAT.**- Kontseilu Errektoreak kooperatibaren jardueren eta kooperatibak izan dezakeen bilakaeraren berri eman beharko dio Zaintza Batzordeari hiru hilabete behin.

**BI.**- Zaintza Batzordeak bere lana burutzeko behar beste egiaztapen egiteko eskubidea du, eta hori egiteko agindua bere kideetako bati edo batzuei eman edo, bestela, adituen laguntza eskatu ahal izango du, kideen artean halakorik ez badago.

**HIRU.**- Batzordeko kide guztiek izango duten emandako edo jasotako informazio guztia ezagutzeko aukera, baina ez dute ikerketa lanen edo jasotako informazioaren emaitzen berri ematerik izango estatutuetan zehaztutako eremuetatik kanpo, ezta kooperatibako kideen aurrean ere.

### **38. ARTIKULUA. ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA**

**BAT.-** Zaintza Batzordeak ondoren datorren Bi zenbakiko ahalmenak izango ditu, baina, ezin du kooperatibaren kudeaketan zuzenean parte hartu, eta ezin da kooperatibaren ordezkari izan beste inoren aurrean; hala eta guztiz ere, kooperatibaren ordezkari izango da kooperatibaren beraren Kontseilu Errektorearen edo kontseilu horretako kideen aurrean, organo hori auzitara eraman behar bada, edo organo horren kideekiko kontratuak amaitu egin badira.

**BI.-** Honako ahalmen hauek ditu Zaintza Batzordeak:

- a) Urteko kontuak aztertzea eta, Batzar Orokorrean azaldu aurretik, kontu horiei eta gaindikinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz nahitaezko txostena egitea; kooperatibak bere finantza egoera kontu ikuskaritzaren baten aurrean aurkeztu behar ez badu, betiere.
- b) Kooperatibaren liburuak aztertzea.
- c) Batzar Orokorra biltzeko deialdia egitea, Kontseilu Errektore osoak dimisioa aurkezten duenean edo Kontseilu Errektoreak estatutu hauetako 24. Bi eta Hiru artikuluetan jasotzen den bazkideen eskaera atzera bota duenean eta kooperatibaren onerako beharrezko jotzen duenean.
- d) Ahalorde idatziak zenbateraino diren egokiak ikuskatu eta kalifikatzea, eta, oro har, batzarretara joateko eskubidearen inguruko zalantza eta gorabeherak argitzea.
- e) Kooperatibaren erabakiak aurkatzea, legedian araututako kasuetan.
- f) Batzar Orokorrak bere esku utzi dituen egoera edo gai zehatzei buruzko azterketen berri ematea Batzar Orokorrari berari.
  
- g) Batzar Orokorrak egin behar dituen gainerako organoetako kideen aukeraketak eta izendapenak kontrolatzea.
- h) Kontseilu Errektoreko kideen karguak etetea, ezintasun edo debeku egoeraren batean badaude, eta, hala gertatuz gero, beharrezko neurriak hartzea Batzar Orokorra bildu arte.
- i) 4/1993 Legeak berariaz ematen dizkion gainerako guztiak.

**HIRU.-** Zaintza Batzordeak Presidente bat eta Idazkari bat aukeratuko ditu bere kideen artean, isilpeko bozketaren bidez.



Hiru hilabete behin bilduko da, gutxienez, Presidenteak gutxienez zazpi egun lehenago idatzitako deialdia eginda, eta balio osoz eratuko da bilkurara, kideen erdia baino gehiago bertaratzen direnean. Ezingo du inork botorik ordezkatu.

**LAU.**- Zaintza Batzordearen funtzionamendu erregimena Kooperatibaren barne araudiak esandakoari lotuko zaio, artikuluko honek jaso gabe uzten dituen kasuetan.

## **V. KAPITULUA**

### **KOOPERATIBAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA**

#### **39. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNAK**

**BAT.**- Kooperatibaren kapitalera egindako ekarpenen zenbatekora mugatuko da bazkideek kooperatibak egindako eragiketetan duten erantzukizun ekonomikoa.

**BI.**- Berreskuratu beharreko ekarpenen zenbatekoa zehaztu ondoren, baja hartzen duten langileek ez dute inolako erantzukizunik izango baja aurretik kooperatibak egin zituen zorreatatik.

#### **40. ARTIKULUA. KOOPERATIBAREN KAPITALA**

**BAT.**- Bazkideen ondarezko ekarpenek —borondatezkoak edo nahitaezkoak— osatzen dute kooperatibaren kapitala.

**BI.**- Kooperatibaren kapitala LAUROGEITA SEI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA BAT EURO ETA HAMAR ZENTIMOKOA (86.161'10 €) da erailketaren unean, eta gutxienerako kapitala ZORTZI MILA EUROAN (8.000 €) finkatzen da.

**HIRU.**- Kooperatibaren kapitalari egindako ekarpenak egiaztatzeko, partaidetza libreta edo agiri izendunak erabiliko dira.

**LAU.**- Ekarpinak diruzkoak izango dira, baina ondasunak edo eskubideak ere erabili ahal izango dira. Azken kasu horietan, Kontseilu Errektoreak zehaztuko du zein den horien balioa, horretarako izendatutako aditu independente baten txostena aztertu eta gero.

**BOST.**- Bazkideek, bazkide laguntzaileek izan ezik, ezingo dute kapitalaren herena baino handiagoko ekarpenik egin.

#### **41. ARTIKULUA. NAHITAEZKO EKARPENAK**

**BAT.**- Bazkide izateko hasieran nahitaez egin beharreko ekarpena aldatu egin daiteke bazkide motaren arabera. Honako hauek dira hasierako kopuruak:

- Bazkide onuradun zuzenak ..... 6'01 euro.
- Bazkide laguntzaileak .....6'01 euro.

Ekarpen horren ehuneko berrogeita hamar gutxienik izenpetzearekin batera ordaindu beharko da, eta gainerako gutzia sei hilabeteko epean, gehienez.

Batzar Orokorrak urtero finkatuko du bazkide berrien hasierako nahitaezko ekarpenaren zenbatekoa.

**BI.**- Bazkideak, bazkide izaten jarraitzeko, kooperatibaren kapitalari egindako 6'01 euroko ekarpenaren titularra izan beharko du gutxienez, eta beharrezkoak diren ekarpen osagarriak egitera behartuta egongo da, bere ekarpenaren saldoa negatiboa bada edo ezarritako gutxienera iristen ez bada.

**HIRU.**- Halaber, Batzar Orokorrak aldizkako kuotak finka ditzake. Bazkideek ordaindu egin beharko dituzte kuota horiek, aipatutako organoak hartutako erabakiak finkatzen duen aldizkakotasuna, kopurua eta ordaintzeko modua aintzat hartuta. Kuota horiek ez dira kapitalaren parte izango eta ezingo zaizkio bazkideei itzuli.

## **42. ARTIKULUA. BORONDATEZKO EKARPENAK**

**BAT.**- Kooperatibaren kapitalaren egonkortasuna indartzeko, baliabideak eskuratzeko aukerak handitzeko, eta, era berean, bazkideek kooperatibaren geroan duten inplikazioa bultzatzeko, kooperatibak bere finantzazioa borondatezko ekarpenez osatzen utzi eta hori sustatuko du, bai kooperatiba eragiketa tradizionalen bidez, bai partaidetza berezien bidez, bai eta kooperatibaren kapitalaren parte izango ez den beste euskarrien bidez ere; hala nola, partaidetza tituluak, obligazioak, maileguak eta abar.

**BI.**- Batzar Orokorrak kapitalari egindako borondatezko ekarpenak onartzea erabaki dezake. Horretarako, honako baldintza hauek finkatu beharko ditu, gutxienez:

- Interes tasa.
- Ekarpena egiteko epea.
- Ekarpena itzultzeko eskubidea.
- Eskualdatze baldintzak.

**HIRU.**- Kontseilu Errektoreak bazkideek borondatez egindako ekarpenak onar ditzake, Legeak ordainketari eta kantitateari ezartzen dizkio mugak errespetatuz.

## **43. ARTIKULUA. EKARPENEN ORDAINKETA ETA BALANTZEAK** **EGUNERATZEA**

**BAT.**- Kooperatibari egindako nahitaezko ekarpenek ez dute interesik sortuko.

**BI.**- Kooperatibaren balantzea zuzenbide orokorreko sozietateentzat ezarritako modu eta onura berberen arabera arautuko da.

Aktiboak eguneratzetik sortutako gainbalioak, hala badagokio, aurreko ekitaldietan sortutako galerak estaltzeko erabiliko dira, eta gainerakoa Erreserba Fondo Banaezin batean sartuko da.

#### **44. ARTIKULUA. EKARPENAK ESKUZ ALDATZEA**

**BAT.**- Ekarpinak bizien arteko egintzen bidez edo heriotzagatiko oinordetzaz besterendu daitezke.

**BI.**- Kontseilu Errektorearen aurretiko adostasuna beharko da ekarpena eskuz aldatzeko, eta erabakia hartzeko jarraituko duen irizpidea esku aldaketa ahalik gehien erraztearena izango da.

#### **45. ARTIKULUA. EKARPENAK ITZULTZEA**

**BAT.**- Bazkide izateari uztean, bazkide horrek edo bere legezko oinordekoek egindako ekarpenen itzulketa eska dezakete, baja gertatu zeneko balioaz. Ekarpin horien balioespena baja gertatu zeneko ekitaldiko balantzearen itxieran zuten balioan oinarrituko da.

**BI.**- Baja 14. edo 15. artikuluetan jasotakoaren arabera arrazoitua denean, edo heriotzagatik denean, ez da inolako murrizketarik egingo.

Beste kasu guztietan, honako murrizketa hauek egitea erabaki dezake Kontseilu Errektoreak:

- \* %30 gutxiago, gehienez ere, bazkidea kanporatua izan bada edo gutxieneko egonaldia bete ez duen arrazoi gabeko baja bada.
  
- \* Bazkideen nahitaezko ekarpenen likidazioko kopuruen %20 gutxiago, gehienez ere, borondatezko, nahitaezko edo arrazoitu gabeko bajen kasuan. Borondatezko ekarpenak ez dira murriztuko.

**HIRU.**- Ekarpena itzultzeko epea ez da izango baja gertatu zenetik bost urte baino luzeagoa, edo bazkidea hil zenetik urtebete baino luzeagoa. Kontseilu Errektoreak erabakiko du zein kopuru itzuliko den, kooperatibaren finantza egoera eta bajaren ezaugarriak aintzat hartuta.

**LAU.**- Itzultzeke dauden kopuruetan diruaren legezko interesak jasoko dira, baina ezingo dira eguneratu.

#### **46. ARTIKULUA. PARTAIDETZA BEREZIAK**

**BAT.**- Partaidetza berezizat hartuko dira 4/1993 Legeko 64. artikuluari berariaz lotzen zaizkion menpeko finantzaketak. Kasu horietan ekarpenak harpidetzen dituztenek ezingo dute kooperatibak izan —4. artikuluan jasotzen den kasuetan izan ezik—, eta ezingo dira ekarpenak itzuli partaidetzak jaulki eta bost urte baino lehen. Ekarpenen ordainketa, berriz, kooperatibaren emaitzak aintzak hartuta finkatuko dira.

**BI.**- Partaidetza horien gainerako araubidea askatasun osoz erabakiko da jaulkitzen diren unean, baina inola ere ez dute emango Batzar Orokorrean botoa emateko edo kudeaketa organoetan parte hartzeko eskubiderik.

**HIRU.**- Artikulu honetan araututakoa mailegu eta aseguru kooperatibei bakarrik ezarri ahal izango zaie, batzuen nola besteen araudiek horretarako eragozpenik jartzen ez badute, behintzat.

**LAU.**- Partaidetza berezien jaulkipena edo kontratazioa —inoiz ez ehuneko 50 baino gutxiago— kooperatibako bazkideei eskainiko zaie, beste inori eskaini baino lehen. Eskaintza horri emango zaion publizitatea Batzar Orokorrerako deialdiek dutenaren baliokidea izango da.

**BOST.**- Ematen zaien izena edozein dela ere, artikulu honi berariaz lotzen ez zaizkion partaidetzak paktu askeaz arautuko dira; bai eta Legeko 57. artikulua kapitalari buruz eta 65. artikulua beste finantzaketa motei buruz jasotzen dutenaren arabera ere.

#### **47. ARTIKULUA. SARRERAKO KUOTA**

**BAT.-** Batzar Orokorrak urtero finkatuko du bai sarrerako kuotaren zenbatekoa, bai eta hasierako nahitaezko ekarpenaren zenbatekoa ere.

**BI.-** Sarrerako kuotak ezingo du izan hasierako nahitaezko ekarpenaren ehuneko hogeita bost baino handiagoa.

**HIRU.-** Sarrerako kuotek ez dute kooperatibaren kapitala osatuko; Nahitaezko Erreserba Fondoa osatuko dute eta ezingo dira titulu pertsonal moduan itzuli.

#### **48. ARTIKULUA. BESTE FINANTZABIDE BATZUK**

Kooperatibak 4/1993 Legearen 65. artikuluko 3., 4., 5. eta 6. ataletan jasotzen diren finantzabideez balia daiteke, horretarako beharrezkoak diren erabakiak hartuta.

#### **49. ARTIKULUA. GAINDIKINAK BANATZEA**

**BAT.-** Aurreko ekitaldietan izandako galerak konpentsatzeko erabilitako diru kopuruak eta zergak kendu ondoren geratzen diren gaindikin garbiak izango dira kooperatibaren gaindikinak.

**BI.-** Batzar Orokorrak banatuko ditu kooperatibaren gaindikinak, honako arau hauek aintzat hartuta:

- a) %30, gutxienez, Nahitaezko Erreserba Fondora eta Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako Fondora bideratuko da; hortik %20, gutxienez, Nahitaezko Erreserba Fondorako izango da, eta beste %10, gutxienez, Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako Fondorako.

Nahitaezko Erreserba Fondoa kooperatibaren kapitalaren %50era iristen ez den bitartean, Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako Fondorako ezarritako gutxieneko ehunekoa erdira murriztu daiteke.

- b) Beste gairik guztiak Borondatezko Erreserba Fondo Banazin bat eratzeo erabiliko dira, kooperatibak etorkizunean izan ditzakeen galerak konpensatu edo xurgatzeko.

## **50. ARTIKULUA. NAHITAEZKO FONDOAK**

**BAT.-** Nahitaezko Erreserba Fondoa ezin da bazkideen artean banatu. Nahitaez bideratu behar dira fondo horretara: kooperatibaren gairikinetatik estatutu hauetan zehazten den ehuneko; zenbait bazkideren baja gertatuz gero, itzuli beharreko ekarpenetatik murriztutako kopuruak; eta sarrerako kuotak.

**BI.-** Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako Fondoa ezin da bahitu, eta horretara bideratuko dira estatutu hauek ekitaldietako emaitzen kargura aurreikusten dituzten zenbatekoak eta bazkideei zehapen prozesuen ondorioz jarritako zehapen ekonomikoen zenbatekoak.

## **51. ARTIKULUA. GALEREN EGOZPENA**

**BAT.-** Galerak kontu berezi batera egotz daitezke geroko emaitza onen kontura amortiza daitezen; bost urteko gehienezko epean, betiere.

**BI.-** Galeren egozpena, legezko mugen barruan, honako arau hauei lotuko zaie:

- a) Borondatezko Erreserba Fondora egotziko dira, lehenik.
- b) Gero, kooperatibaren Eguneratze Fondora egotziko dira.
- c) Ondoren, Nahitaezko Erreserba Fondora egotziko dira, araudiak onartzen dituen gehienezko mugen barruan.
- d) Egozteko geratzen diren gainerako galerak bazkideen artean banatuko dira.

## **52. ARTIKULUA. KONTUEN IKUSKARITZA**

Kooperatibak kanpoko kontu ikuskaritzara aurkeztuko ditu urteko kontuak eta kudeaketa txostena, Kontseilu Errektoreak edo Batzarrak hala erabakitzen dutenean.

Batzar Orokorrak izendatuko ditu kontu ikuskatzaileak, edo, bestela, Kontseilu Errektoreak. Azken kasu horretan, izendapena egin eta lehenengo Batzar Orokorrean jakinaraziko du ikuskatzaileen berri.

## **VI. KAPITULUA**

### **KOOPERATIBAREN AGIRIAK ETA KONTULARITZA**

#### **53. ARTIKULUA. KOOPERATIBAREN AGIRIAK**

**BAT.**- Kooperatibak behar bezala bete eta eguneratuko ditu honako liburu hauek:

- a) Bazkideen erregistroa.
- b) Kooperatibaren kapitalerako ekarpenen erregistroa.
- c) Batzar Orokorraren, Kontseilu Errektorearen eta Zaintza Batzordearen akta liburuak.
- d) Inbentario eta balantzeen liburua.
- e) Egunkari liburua.
- f) Legeek hala eskatzen dituzten beste guztiak.

Kooperatiben Erregistroak edo eskuduntza duen erakundeak legeztatuko ditu liburuok, erabili baino lehen.

**BI.**- Idazpenak eta oharpenak informatikoki edo beste edozein bide egoki erabiliz egingo dira. Jarraian, elkarren segidan azaleztatu eta legeztatuko dira Kooperatiben Erregistroan, ekitaldia amaitu eta sei hilabeteko epean.

Horren kalterik gabe, aurreko atalean aipatzen diren organoetako aktak, informatikoki edo antzeko bideren bat erabiliz osatu, eta Kooperatiben Erregistroa igorriko dira, ziurtapen bidez, haiek onartu eta bi hilabeteko epean.



## **54. ARTIKULUA. KONTULARITZA**

**BAT.**- Kooperatibak bere jarduerari dagokion kontularitza eramango du, Merkataritzako Kodean eta aplikagarriak diren beste arauk ezarritakoaren arabera, eta kooperatiben erregimen ekonomikoaren berezitasunak aintzat hartuta.

**BI.**- Kooperatibaren urteko kontuak ekitaldia ixterakoan aurkeztuko dira, eta honako agiri hauek jasoko dituzte: balantzea, galera eta irabazien kontua eta memoria. Halaber, kudeaketa txostena ere jasoko du urteko kontuen ikuskaritza egiteko obligazioa badu.

## **55. ARTIKULUA. URTEKO KONTUEN GORDAILUA**

Kontseilu Errektoreak Batzar Orokorrak onartu eta hilabeteko epean aurkeztuko ditu urteko kontuak Kooperatibaren Erregistroan gordailuan uzteko; bai eta, hori egiteko beharra balego, kudeaketa txostena eta kontu ikuskariena ere. Aipatutako kontuak eta txostenak Kontseilu Orokorreko kide guztiek sinatu beharko dituzte, eta haietako baten batek ezingo balu sinatu, berariaz adierazi beharko litzateke arrazoia.

## **VII. KAPITULUA**

### **KOOPERATIBA DESEGITEA ETA KITATZEA**

## **56. ARTIKULUA. DESEGITE ARRAZOIAK ETA ERABAKIAK**

**BAT.**- Honako hauek izango dira kooperatiba desegiteko arrazoiak:

- a) Objektu soziala burutzea, hura lortzea ezinezkoa bihurtzea, edo kooperatibako organoen funtzionamendua bertan behera gelditzea.

- b) Bazkide kopurua murriztea, kooperatiba eratzeko legez eskatzen den gutxienekotik behera, murrizketak hamabi hilabete baino gehiago irauten badu.
- c) Kooperatibaren kapitala murriztea, estatutuetan ezartzen den gutxienekotik behera, eta hamabi hilabetean gutxieneko diru kopuru hori gaintitzen ez bada.
- d) Ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 76. artikulutik 84. artikulura aipatzen diren bateratze edo guztizko bereizketen kasuan.
- e) Kooperatibaren porrota adierazten duten ebazpen judizialen ondorioz.
- f) Berariaz horretarako antolatutako Batzar Orokorraren erabakiz. Batzarrera deitzearekin batera, desegite proposamen arrazoitua bidaliko zaio bazkide bakoitzari, eta proposamen horri balantze itxia erantsiko zaio, Batzarra egin aurreko 30 egunen barruan.
- g) Kooperatiben 4/1993 Legeak edo estatutuek araututako beste arrazoi batzuk.

**BI.**- Kooperatiba desegiteko erabakia gehiengo soilez hartuko da; d) eta f) kasuetan, ordea, bi hereneko gehiengoa beharko da.

Aurrez aipatutako kausaren bat gertatuz gero, administratzaileek bi hilabeteko epean egin beharko dute Batzar Orokorra biltzeko deialdia. Zaintza Batzordeak edo beste edozein bazkidek eska diezaieke administratzaileei deialdia egitea.

Kooperatiba desegiteko erabakia edo hura desegitea adierazten duen ebazpen judiziala Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoan zabalkunde handia duen egunkari batean argitaratu beharko da.

## **57. ARTIKULUA. KITAPENA**

**BAT.**- Bateratze eta banantze kasuetan izan ezik, kooperatiba desegin ondoren, bazkide kitatzaileak izendatuko ditu horretarako erabakia hartu duen Batzar Okorrak, edo, bestela, horretarako eratuko den Batzarrak.

Kitatzaileen izendapena Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da.

Kooperatiba desegin eta bi hilabete igarota kitatzaileak izendatu ez badira, administratzaileek bi likidatzaile izendatzeko eskatu beharko diote Lehen Auzialdiko

Epailari. Kasu horretan, likidatzaileak kooperatibako bazkide ez direnak ere izan litezke likidatzaile.

Likidatzaileek organo kolegiatu gisa jardungo dute, eta hartzen dituzten erabakiak Akta Liburu batean jaso beharko dituzte.

**BI.**- Kitatzaileek kitapena egiteko behar adinako eragiketak egiteko ahalmena izango dute, kooperatibaren izenean jardungo dute bai auzitegietan bai beste edonon, eta lehengo administratzaileek zituzten ahalmen berak izango dituzte kooperatiba hirugarrenen aurrean behartzeko. Honako hauek dira beren eginkizun nagusiak:

- a) Azken balantzea egitea, argi eta garbi azalduz zein den kooperatibaren azken ondare garbia. Halaber ondare horren banaketa proiektua egin beharko dute, eta hala badagokio, Batzar Orokorrari aurkeztu, proiektua onar dezan.
- b) Indarrean dagoen legediak esleitzen dizkienak.

### **AZKEN XEDAPENAK.**

#### **LEHENA: Kooperatiba arbitraia.**

Kooperatibaren eta beste kooperatiben artean sortzen diren auziak edo kooperatibaren eta bazkideen artean sortzen direnak Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiaren arbitraiaren bidez erabakiko dira, auziak, zuzenbidearen arabera, alderdien arteko xedapen askeko gaiei buruzkoak badira.

#### **BIGARRENA: Legelari aholkularia.**

Urteko kontuak kanpoko ikuskaritzaren esku jartzera behartuta dagoenean, kooperatibak legelari aholkulari bat izendatu beharko du.

Legelari aholkulariaren funtzioak kontratu harremana eta erantzukizuna 4/1993 Legeak 73. artikuluan arautzen duena eta bi alderdiek kontratuan finkatzen dituztenak izango dira.

### **HIRUGARRENA: Irabazi asmorik eza.**

Otsailaren 2ko 64/1999 Dekretuak onura publikoko kooperatiba sozietateei dagozkien prozeduren eta betekizunen araudia onartzen du, eta bere 5. artikuluko b puntuak dio, hitzez hitz, irabazi asmorik gabeko kooperatibatzat hartuko direla estatutuetan honako hauek jasotzen dituztenak:

- Ekonomia ekitaldi batean emaitza positiborik sortzen bada, onurak ez dira bazkideen artean banatuko.
- Sozietatearen kapitalean bazkideek egiten dituzten ekarpenek, nahitaezkoek nahiz borondatezkoek, ez dute diruaren legezko interesetik gorako interesik sortzerik izango, horiek eguneratu ahal izango diren arren.
- Kontseilu Errektoreko karguak doan beteko dira. Hala ere, diru ordainak izango dira Kontseiluko kideei beren egitekoak burutzerakoan sortzen zaizkien gastuetarako.
- Bazkide langileen edo, hala badagokio, lan bazkideen eta norbere konturako langileen ordainketek ez dute gaindituko sektoreko soldatadun langileei aplikatzen zaien hitzarmen kolektiboak lanbidearen kategoria eta jardueraren arabera ezartzen dituen ordainketen ehuneko berrogeita hamarra.